

ESKOLIOSIA

ZER DA?

Egiturako eskoliosia, bizkarrezurraren alde baterako kurbatura ez fisiologikoa bezala definitzen den egituraren alterazioa da. Jatorri ezezagunekoa den arren, beste gaixotasun edo malformazioen ondorioz sortu daiteke. Hala ere, ohikoenak eskoliosi idiopatikoak dira eta haur osasuntsuetan azaltzen dira, ondoren hezurren hazkuntza amaitzean desagertu egiten da.

Eskoliosi posturala edo posturazko eskoliosia, borondatezko postura baten ondorioz azaltzen da eta itzulgarria da. Hau da, bere onera itzuli daiteke, ez dagoelako hezurrean bertan inongo alteraziorik, egitura egoera osasuntsuan dago.

SINTOMAK

Eskoliosiak ez du bizkarreko mina pairatzeko arriskua areagotzen. Eskoliosi gradua 80°tik gorakoa bada, arnas zein bihotzeko alterazioak sor ditzake.

Eskoliosi idiopatikoa berriz, alterazio estetiko bezala kontsideratzen da eta ez du inongo minik zein alterazio funtzionalik sortzen.

TRATAMENDUA

Eskoliosi idiopatikoaren kasuan, ariketa terapeutikoak eragin positiboa du bizkarreko minaren prebentzio eta eboluzioan azken ebidentzia zientifikoaren arabera. Izan ere, muskulaturaren egoera eta sistema metaboliko zein bihotz sistemaren egoera modulatu ditzake. Horrez gain, eskoliosiari aurre egiteko beharrezkoak diren muskulaturaren indartzean eragiten du.

Eskoliosi larrien kasuan, hau da, arnas eta bihotz arazo larriak sortzen dituzten egoeretan, kortseak eta kirurgia dira ebidentzia zientifiko handiena duten tratamendu bideak.

